

**UDALERRIA SUSPERTZEKO EGITEN DIREN****LANETARAKO DIRULAGUNTZAK.****DIRULAGUNTZA HORIEK ARAUTZEKO****UDALAK PASAIA-LEZO LIZEOAREKIN EGINDAKO HITZARMENA**

Pasaian, 2001eko uztailaren 24an

**BERTARATU DIRA**

Alde batetik:

Juan Carlos ALDUNTZIN JUANENA jauna, Pasaia Udaleko alkatea, bere karguko eginkizunean, Pasaia Udalaren izenean eta ordeztuz, 2001eko martxoaren 30ean ubalbatzak hartutako akordio bidez hitzarmen hau formalizatzeko gaitua izan dena.

Bestaldetik:

LORENZO URRUSOLO SISTIAGA jauna, 15.937.083 NAN zk.a duena, PASAIA-LEZO LIZEOA SL-ren izenean eta ordeztuz, administratzaile solidario gisa, horrela egiaztatu baitu 2000ko otsailaren 29ko eskrituraren kopia bidez.

Bi alderdiek dokumentu hau egiteko nahikoa gaitasun aitortu diote elkarri eta hori dela eta, honakoa

**AZALTZEN DUTE**

- I. Pasaia San Pedroko Herriko Plazan eta Pasaia Donibaneko San Roque kaleko J.J. Otaegi Plazan dauden eskola-eraikinak desafektatzeko espedienteari hasiera eman zitzaion, besteak beste, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak 2000ko uztailaren 15eko agindu bidez udal honi horretarako baimena eman zion; desafektazio horretatik kanpo geratu ziren Pasaia-Lezo Lizeoak Haur Hezkuntzarako erabiltzen dituen 6 gela eta Pasaia Donibaneko J.J. Otaegi Plazako eraikineko beste 4 gela.
- II. Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak 2000ko urriaren 26an emandako agindu bidez, aipatutako erabakia aldatu egin zen, eta Pasaia-Lezo Lizeoak erabiltzen dituen gela horiek ere desafektazioaren barne sartu ziren, udalak Lizeoari gela hauek uzteko borondatea azaldu baitzuen, Haur Hezkuntzarako erabiltzen jarrai ditzaten.
- III. Udalbatzak 2001eko urtarrilaren 29an izandako bileran, beharrezkotzat jo zuen lokal hauen lagapena arautzeko hitzarmena formalizatzea; Eusko Jaurlaritzak baimena eman ondoren, udala arduratzen baita aipatutako eraikin horien kudeaketa eta erabileraz.
- IV. Honako hau egokiera ona da eraikinen mantentze eta zaintze-lanei dagozkien gaiak eta zerbitzuen gastuak eta hauek nola banatuko diren arautzeko; eta era berean, instituzio horrekiko sustapen-jarduerak era integralean hitzartzeko aukera ere bada.

- V. Udalerrriak duen geografia-egoera bereziak zaildu egiten ditu barrutien arteko loturak, badia inguruan banatutako herria baita; kontuan hartu behar da Pasaia-Lezo Lizeoak hezkuntza-lana udalerrri ososan egiten duela eta horretarako oztopo horiek gainditzen dituen garraio-zerbitzua duela.
- VI. Osoko bilkuran bi alderdiek bi instituzioen arteko harremana arautuko duen hitzarmena sinatzeko borondatea adierazi dute.
- VII. Azaldutako guztia kontuan hartuta, hitzarmen honen helburua honakoa da: arestian deskribatutako sustapen-jarduerak arautu eta artikulatzea, eta Pasaia-Lezo Lizeoarekin batera laguntza hauek emateko baldintzak definitzea, ondoren zehazten den moduan:

## HITZARTUTAKOAK

### 1. UDALAREN LOKALAK UZTEA

- a) Udalak Lizeoari haibat lokal erabiltzen utziko dio: batetik, garai batean San Pedroko eskola publikoak izandako lokalak, eta bestetik, garai batean Pasai Donibaneko Eskola Publikoak izandako lokaletako lehenengo eta bigarren solairuak. Lokalak 5 urtez utziko dizkio, baina epe hau bost urteka luza daiteke. Lokal hauek hezkuntzarako erabiliko ditu Lizeoak, zehazki Haur Hezkuntzarako.

Baldin eta udalaren baimenik gabe lokal horiek beste zerbaiterako erabiliko balira, lagapena bertan behera geratuko litzateke.

- b) Eraikin hauen erabilera, mantentze-lanak eta zaintze-lanak erabiltzailearen ardura izango dira, hau da, Pasaia-Lezo Lizeoaren ardura; eta eraikin bakoitzean 50.000 pta. gainditzen ez duten gastuak beregain hartuko ditu. Ezohiko gastuak, hau da, 50.000 pta. gainditzen duten gastuak udalak hartuko ditu beregain, erabiltzailearen zabarkeriak eragindako gastuak izan ezik.

Udalak urtero-urtero udal-eraikinen inbertsio eta zaintze-obrei buruzko plan bat onartuko du, urteko aurrekontuan aurreikusitakoaren arabera, eta utzitako lokal hauek ere plan horren barne egongo dira.

Plan hori onartu aurretik, hitzarmen honen 7. klausulan aipatzen den Segimendu Batzordeari plan horren berri emango zaio, Pasaia-Lezo Lizeoaren iritzia jasotzeko.

Baldin eta ezusteko beharren bat sortuko balitz, Pasaia-Lezo Lizeoak bi aukera izango ditu: finantziazioa beregain hartzea, edo udalaren kontura egitea, aurrez iragarritako obraren bat gerorako utzita.

- c) Eraikin hauen mantentze-gastuak udalaren kontura izango dira: argia, ura eta kalefazioa; baita.....eta erantzukizun zibileko aseguruia ere, egungo kontsumo-maila mantentzen bada. Baldin eta kontsumo-maila gainditzen bada Lizeoak ordaindu beharko du gehiegizko gastu hori.
- d) Jarduerari dagokion .....asegurua eta erantzukizun zibileko aseguruia erabiltzailearen kontura izango dira; eta urtean behin poliza hauen kopiak eta urteko memoria udalean aurkeztu beharko dituzte, udalak oniritzia eman dezan.

## 2. LIZEOAREN MANTENTZE-GASTUAK BANATZEA

1. Lizeoaren mantentze-gastuak honako hauek dira: atezaintza-gastuak, argia, eta igogailua, alarma eta kalefazioa mantentzea; bai Lizeoaren lokal nagusian, eta baita aurrerantzean Lizeoak eskura ditzakeen lokaletan ere. Halaber, Lizeoaren lokal nagusiaren garbiketa ere gastu hauen barne dago, baita udalak utzi dizkien gainerako lokalen garbiketa ere.
2. Akordio hau indarrean dagoen artean, Pasaiaiko Udalak Lizeoari urteko 7.500.000 pta. ordainduko dizkio, arestian aipatutako gastuak ordaintzeko.

## 3. GARRAIOA

Kontuan hartuta pasaitarrek hezkuntza aukera izan dezaten garraioa ezinbestekoa dela, udalak Lizeoko ikasleen garraio-gastuak ordaintzen ere lagunduko du, DBH ko laugarren maila bitarteko ikasleen garraio-gastuak; hain zuzen ere, derrigorrezko ikasketak amaitu arteko ikasleenak. Laguntza hori 7.500.000 pta.koa izango da.

Aipatu kopurua eta kopuru horren egunerapenak segimendu-batzordeak berrikusiko ditu, baldin eta beste administrazio batek finantziazioan parte hartzen badu edo egungo zerbitzua aldatzen bada, eta desagertu ere egin liteke beste administrazio batek zerbitzu hori emango balu.

Hori dela eta, Pasaia-Lezo Lizeoak une bakoitzean duen finantziazio eta dirulaguntzen berri eman behar dio udalari. Betebehar hau beteko ez balute, hitzarmen hau deuseztu egingo litzateke.

## 4. LAGUNTZAK

Ikasketak Lizeoan egiten ari diren ikasleen familiek, arautzen diren laguntza edo bekak jasotzeko aukera izango dute, udalerriko gainerako ikastetxeetako ikasleek bezalaxe. Laguntza horien onuraduna familia izanik ere, dirulaguntza ikastetxearen bitartez ordainduko da, eskatzailearen onespenerekin.

Egun laguntza hauek arautu gabe daudenez, udalak horri buruzko zirri-borroa egiteko konpromisoa hartzen du; ekainaren 30a baino lehen ikastetxeetan aukeztuko da, eztabaidatu eta behin betiko onar dadin, 2001-2002 ikasturtean gauzatu ahal izateko.

## 5. EGUNERATZEA

Aurreko ataletan aipatutako diru kopuruek duten balio monetarioa gorde dadin, kopuru hauek urtero-urtero eguneratuko dira, Euskal Herriko Estatistika Institutuak (EUSTATEk) Gipuzkoako herrialderako argitaratzen duen Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPI) arabera.

## 6. IRAUNALDIA

Marko-akordio honek, luza daitekeen bost urteko iraunaldia izango du. Ondorioz, urtebete edo ikasturte bat lehenago alderdiek ezer esango ez balute, besterik gabe, akordioa beste bost urtez luzatuko litzateke

Hitzarmen hau 2001eko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da atzeraeraginez.

## 7. SEGIMENDU-BATZORDEA

Akordio hau edo sinatzen den hitzarmena behar bezala bete dadin, Pasaiaiko Udalak eta Pasaia-Lezo Lizeoak segimendu-batzorde berezi eta paritarioa sortuko dute, batzorde honetan indar politiko gehienek hartuko dute parte.

**ETA  
EZ**



Eta horrela jasota gera dadin, bien aldetik adostasuna adieraziz, hiru aletan izenpetuko dute, hasieran aipatutako leku eta egunean.

ALKATE-LEHENDAKARIA

Juan Carlos Alduntzin Juanena jauna

ADMINISTRATZAILE SOLIDARIOA

Lorenzo Urrosolo Sistiaga jauna

**CONVENIO REGULADOR**  
**DE LAS ACCIONES DE FOMENTO MUNICIPAL**  
**DEL PASAIA-LEZO LIZEOA**

En Pasaia, a de 24 de Julio de 2001

**REUNIDOS**

De una parte:

D. Juan Carlos ALDUNTZIN JUANENA, Alcalde del Ayuntamiento de Pasaia, en ejercicio de su cargo, en nombre y representación del Ayuntamiento de Pasaia, especialmente facultado para la formalización del presente Convenio mediante acuerdo plenario de fecha 30 de Marzo de 2.001

De otra parte:

D. . LORENZO URROSOLO SISTIAGA, con DNI 15.937.083 en nombre y representación de PASAIA LIZEOA, S.L, en calidad de Administrador Solidario, tal y como acredita mediante copia de escritura de 29 de febrero del 2000.

Ambas partes en la calidad y representación con la que intervienen, se reconocen mutuamente capacidad bastante para otorgar el presente documento, y en su virtud

**EXPONEN**

- I. CONSIDERANDO que iniciado expediente de desafectación de los edificios escolares sitos en Herriko Plaza de Pasai San Pedro y Plaza J.J. Otaegi y c/ San Roque de Pasai Donibane, entre otros, mediante Orden de 15 de julio de 2.000 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, se concedió a este Ayuntamiento autorización previa a la misma excepto las 6 aulas destinadas a escolarización de Educación Infantil del Pasaia-Lezo Lizeoa y 4 aulas destinadas al mismo fin en el edificio de la Plaza J.J. Otaegi de Pasai Donibane.
- II. CONSIDERANDO que mediante Orden de 26 de octubre de 2.000 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, se modificó la anterior resolución en el sentido de autorizar la desafectación también de las mencionadas aulas utilizadas por el Pasaia-Lezo Lizeoa, toda vez que el Ayuntamiento había manifestado su voluntad de ceder el uso de las mismas a dicho Pasaia-Lezo Lizeoa para que pueda seguir utilizándolas para la escolarización de Educación Infantil.
- III. CONSIDERANDO que la Corporación Municipal, Pleno, en sesión de fecha 29 de enero de 2.001, consideró necesaria la formalización de un Convenio para regular las condiciones de la cesión del uso, toda vez que obtenida la autorización del Gobierno Vasco, el Ayuntamiento ha devenido en el responsable de la gestión y uso de los anteriores edificios.
- IV. CONSIDERANDO que es una buena ocasión para regularizar y normalizar las cuestiones relativas al mantenimiento y conservación de los edificios, así como los gastos de los servicios y el

régimen de su soportamiento, así como para convenir de forma integral las acciones de Fomento para con dicha Institución.

- V. CONSIDERANDO que las especiales condiciones geográficas del municipio, disgregado alrededor de la Bahía, dificultan las conexiones entre los distritos y teniendo en cuenta que el Pasaia-Lezo Lizeoa realiza su labor educativa dirigida a toda la población pasaitarra disponiendo de un servicio de transporte que supera las mencionadas barreras.
- VI. CONSIDERANDO por último que existe voluntad, manifestada como anteriormente se ha apuntado en sede plenaria, por ambas partes de suscribir un convenio que regule las relaciones que han de mantener ambas instituciones.
- VII. Es objeto del presente convenio regular y articular las acciones de fomento descritas anteriormente, definiendo concertadamente con el Pasaia Lezo Lizeoa las condiciones de su otorgamiento de acuerdo con las siguientes,

## ESTIPULACIONES

### 1. CESION DE LOCALES DE PROPIEDAD MUNICIPAL

- a) El Ayuntamiento cede al Lizeo el uso de los locales de lo que en su día fueron las Escuelas Públicas de San Pedro, así como los locales de lo que en su día fueron las Escuelas Públicas de Pasai Donibane, en sus plantas primera y segunda, por un período de 5 años prorrogables por iguales plazos, a fin de que los dedique a la enseñanza y en concreto a aula de Educación Infantil.

En el caso de dársele a dichas instalaciones un uso distinto al anterior sin consentimiento del Ayuntamiento se revocará automáticamente la cesión de uso anterior.

- b) El uso, mantenimiento y buena conservación de estos edificios será responsabilidad del usuario, es decir, Pasaia Lezo Lizeoa, quien se hará cargo de los gastos derivados de ella que individualmente no superen la cantidad de 50.000 pesetas. Los gastos extraordinarios, que a estos efectos serán los que individualmente superen esa cantidad serán a cargo del Ayuntamiento, siempre y cuando no sean imputables al mal uso o negligencia del usuario.

El Ayuntamiento aprobará anualmente un plan de inversiones y obras de conservación de edificios municipales, en el que se incluirán los edificios objeto de cesión de acuerdo con las previsiones presupuestarias de cada ejercicio.

Con anterioridad a su aprobación, se dará cuenta de dicho plan en el seno de la Comisión de Seguimiento prevista en la cláusula Séptima de este convenio a fin de escuchar el parecer del Pasaia-Lezo Lizeoa.

En el supuesto de producirse una necesidad imprevista el Pasai-Lezo Lizeoa deberá elegir entre hacerse cargo de su financiación o en caso contrario deberá señalar al Ayuntamiento qué obras de las previstas realizar en cada ejercicio deben posponerse para poder financiar las obras imprevistas.

- c) Serán de cuenta del Ayuntamiento los gastos de entretenimiento en estos edificios concernientes a luz, agua y calefacción, así como el seguro del continente del edificio y el de responsabilidad civil derivada del mismo, siempre que se mantengan en los niveles actuales de consumo. En caso contrario serán por cuenta del Lizeo los excesos de dichos consumos.

- d) Serán por cuenta del usuario los seguros tanto del contenido como de la responsabilidad civil de la actividad, de cuyas pólizas habrá de presentar copia en el Ayuntamiento una vez al año, junto con la memoria anual a fin de que reciba el visto bueno del Ayuntamiento.

## **2. COFINANCIACION DEL MANTENIMIENTO DEL LICEO**

1. En el concepto de mantenimiento del Liceo se incluyen los gastos de conserjería, luz, mantenimiento del ascensor, alarma y calefacción del local central del Liceo y de aquellos otros que pudiera adquirir el Liceo en el futuro. Asimismo, se incluirán en estos gastos la limpieza del local central del Liceo así como los gastos derivados de la limpieza de los centros de propiedad municipal cuyo uso se ceda por el Ayuntamiento.
2. Por los citados conceptos el Ayuntamiento de Pasaia abonará anualmente al Liceo y durante la vigencia que se estipule, la cantidad de 7.500.000 pesetas.

## **3. EL TRANSPORTE**

Tomando en consideración la imprescindibleidad del transporte para facilitar la posibilidad de la enseñanza en Pasaia, el Ayuntamiento cofinanciará los gastos generados en el transporte de los alumnos/as pasaitarras del Liceo hasta el tramo de 4º de ESO, es decir, hasta terminar los estudios obligatorios, en la cantidad de 7.500.000 pesetas, anual y durante la vigencia estipulada.

La anterior cantidad así como la de sus actualizaciones será revisada en el seno de la comisión de seguimiento en el caso de que exista una cofinanciación por parte de otra administración o se modifique el servicio actual hasta incluso desaparecer en el caso de que otra Administración preste dicho servicio.

A tal efecto el Pasaia Lezo Lizeoa tiene la obligación de comunicar al Ayuntamiento las subvenciones o financiación con la que cuente en cada momento. En caso de incumplimiento de la anterior obligación se producirá la automática rescisión del presente Acuerdo.

## **4. AYUDAS**

Las familias de aquellos alumn@s pasaitarras que cursen sus estudios en el Lizeo accederán en iguales condiciones que las del resto de los centros escolares del municipio a aquellas ayudas o becas que reglamentariamente se establezcan. Se entenderá como beneficiario a la familia si bien la subvención será abonada a través del centro educativo, previo consentimiento del solicitante.

Dado que en la actualidad estas ayudas carecen de reglamento, el Ayuntamiento se compromete a la elaboración de un borrador que será presentado a los centros escolares con anterioridad al 30 de Junio, para que sea objeto de debate y quede definitivamente aprobado para poderlo poner en práctica al comienzo del curso 2001-2002.

## **5. ACTUALIZACION**

Con el fin de mantener la capacidad monetaria de las cantidades establecidas en los apartados anteriores, éstas se actualizarán anualmente con el Índice General de Precios al Consumo (% IPC) del año precedente, publicado por el Instituto Vasco de Estadística (EUSTAT) para el herrialde de Gipuzkoa.

## **6. VIGENCIA**

El presente Acuerdo tendrá una vigencia de cinco años prorrogables por iguales periodos.. Consecuentemente se entenderá prorrogado automáticamente y para otro período de cinco años en el

**ETA  
EZ**



caso de no ser denunciada su vigencia por cualquiera de las partes con un año o curso escolar de antelación.

El presente convenio entrará en vigor con carácter retroactivo al 1 de enero de 2001

## **7. COMISION DE SEGUIMIENTO**

Con el fin de una plena articulación del presente acuerdo o en su defecto del convenio se procederá a crear con carácter específico y paritario, una comisión de seguimiento entre el Ayuntamiento de Pasaia y Pasaia Lezo Lizeoa, que deberá integrar en el apartado municipal a la totalidad o en su caso a la mayoría de las fuerzas políticas.

Y en prueba de conformidad las partes intervinientes, firman por triplicado el presente Convenio, en el lugar y fecha del encabezamiento.

EL ALCALDE-PRESIDENTE

D. Juan Carlos Alduntzin Juanena

EL ADMINISTRADOR SOLIDARIO

D. Lorenzo Urrosolo Sistiaga